

Zortzi miliun lagunek bizia galdu zuten eta sei miliun kolpatu ziren munduko lehen gerlan. 1914 eta 1918 urteen artean iragan zen gerlan, Frantzia osoki suntsitu zen. Hilak eta desagertuak kontuan hartuz, miliun bat eta erdi lagun zendu ziren lau urte luze iraun zuen desmasian. Orduan, 39 miliun herritar zituen Frantziak, eta zortzi miliun mobilizatu ziren gatazkan parte hartzeko. Kalte haundiak izan ziren, lehen borroka mekanizatua izan baitzen. Lehen aldikoz, motorren indarrak, ibilgailu blindatuen loditasunak eta armak ekoizteko gaitasunak nagusitu zitzaizkien gizonen indarrari eta kuraiari.

1918ko hazilaren 11n, Alemaniak amore eman zuen, eta armistizioa izenpetu zen. Lau urteko guduak kalte handiak sortu zituen Ipar Euskal Herrian ere. Laneko on ziren gizonez hustu ziren herriak eta etxaldeak.

Lapurdi aldeko gizonek Baionako berrogoita bederatzigarren infanteria errejimentuan borrokatu zuten. Ipar Euskal Herriko 6 000 soldadu hil eta Pirinio Atlantikoetako departamenduko 50 000 herritar kolpatu ziren. Biktimen familiek eta, oro har, herritar gehienek frantses abertzaletasun sentimendua sentitu zuten, lehen aldikoz.

DOLOSOR, Franck (2009). *Senperetik Senperera. Begirada bat XX. mendeari*. Donostia: Elkar. (45-46).